

EBAZPENA, 2021eko urtarrilaren 13koa, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiarena, Jabari Publikoa kudeatzeko teknikari lanpostua betetzeko prozesuaren Kalifikazio-epaimahairako aholkularia izendatzeko dena.

Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiaren 2020ko martxoaren 4eko Ebazpenaren bidez, Uraren Euskal Agentzian zenbait lanpostu behin betiko betetzeko eta lan-poltsak eratzeko hautaketa-prozesuari buruzko Jabari Publikoa kudeatzeko teknikari argitaratu zen 2020ko martxoaren 12ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA 50. zk.). Argitara emandako lanpostu horien artean dago Uraren Euskal Agentziaren Jabari Publikoa kudeatzeko teknikari lanpostua.

Uraren Euskal Agentziako Jabari Publikoa kudeatzeko teknikari lanpostua betetzeko hautaketa-prozesua arautzen duten oinarrien seigarren oinarrian zehaztutakoari jarraituz, epaimahaiak erabaki dezake aholkulari espezialistak hartzea hautaketa-prozesuko proba bateko edo batzuetako lanetarako. Aholkulari espezialista horiek hitza izango dute, baina botorik ez, eta beren lan bakarria izango da epaimahaiari laguntzea espezialitate teknikoetan.


Ikusita epaimahaiak aurkeztutako eskaria, non eskatzen baita galdera espezifikoak eta kasu praktikoan lantzen lagunduko lukeen aholkulari baten izendatzeko,

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Izendatzea Ana Isabel Montilla Olalde eta M^a Jose Guerrero Verdejo andreak Uraren Euskal Agentziaren Jabari Publikoa Kudeatzeko Zuzendaritzako Jabari Publikoa kudeatzeko teknikaria hautatzeko prozesuko Kalifikazio-epaimaharen aholkulariak.

Bigarrena.- Ebazpen hau Uraren Euskal Agentziaren web-orrian (www.uragentzia.euskadi.eus) eta CRH consultores kanpoko aholkularitza-enpresaren web-orrian (www.crhconsultores.com) argitaratzea.

Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 13a.



Antonio Aiz Salazar

Zuzendari nagusia

Uraren Euskal Agentzia